

Ingurumen Buletin

berezia

***'Europako Jardunaldi Ekosozialistak:
Erronka ekologikoari alternatibak'***

Ginebra, 2014ko urtarrilaren 24, 25 eta 26

1. JARDUNALDI EKOSOZIALISTEN KRONIKA

Klima aldaketa ondorio larrienetakoa duen krisi ekologikoa, aurrekaririk ez duen mehatxua da gizateria eta ingurumenarentzat. Hondamendi honen sustraian zibilizazio bat aurkitzen da, mendebaldeko kapitalismoaren zibilizazioa, zeina mugarik gabeko irabazien pilaketan, kontsumismoan eta merkantzien fetitxismoan oinarrituz eraiki den. Bere mugarik gabeko hazkundearen logika naturaren babesarekin bateraezina da.

Sistema kapitalistak eskainiriko irtenbideak (kapitalismo berdea, garapen iraunkorra, karbono merkatua, energia nuklearra,...) onartezinak dira eta ez daude gizateriak aurrean duen larrialdia sozial eta ekologikoaren mailan. Ekosozialismoa sozialismoaren eta ekologia kritikaren ideiak uztartzen dituen saiakera da. Bere helburua zibilizazio berri bat da, bizimodu alternatibo bat, balio etiko eta sozial berrietan oinarritua. Ekosozialismoa ez da kapitalismoarekin bateragarria. Ekosozialismoa antikapitalista eta feminista da.

Alternatiba honen eraikuntzan batera aurrera egiteko deialdi bat egin da erakunde, mugimendu sozial, kolektibo eta pertsonen parte hartu dezaten. Topaketa hauen helburua esperientziak partekatzea,

ekosozialismo kontzeptuan sakontzea, programa bateratu bat garatzea eta kanpaina komunak proposatzea izan da.

Ehunka pertsona, elkarte, mugimendu sozial eta sindikatuk erantzun diogu deialdiari topaketetan parte hartuz. Hiru egunetako programa bizia izan da, gai ezberdinei buruzko hitzaldi eta tailer ugariarekin, beti ere gaur egungo sistema ekonomiko, energetiko, produktibo eta kontsumoari alternatibak proposatzeko helburuarekin.

Azpimarratzeko parte hartzeak izan dira. Esaterako aurretik ELAren elkarlanean aritu den Yayo Herrero aktibista ekofeminista. Bere hitzaldian ekosozialismoaren borrokan ere lan erreproduktiboa ageriko egitearen garrantzia azpimarratu zuen. Andaluziako SAT sindikatuaren ordezkartza bat ere izan zen, Juan Manuel Sánchez Gordillo eta Mari Carmen García Bueno, buru zituena, beraiek Andaluziako langileen borrokak eta Hegoaldeko eta Europako nekazarien borrokak azaldu zizkiguten. Topaketa hauetan parte hartu duen ELAren ordezkartzak, sindikatuek trantsizio ekologikoan duten paperaren inguruan eta transformazio sozialaren aldeko borroka eta alternatiben inguruan antolaturiko tailerretan parte hartze aktiboa izan dugu. Trantsizio energetikoa,

erronka ekologikoak eta erresistentziak European, gizateriaren erronka ekologikoak edo Hegoaldetik ikasi dezakegunaren inguruko tailerretan ere izan gara. Leku ugaritan martxan jarri diren esperientziak ezagutu ditugu: borroka sozialetan parte hartzen duten ekoizle eta kontsumitzaileek osaturiko kontsumo taldeak, moneta lokalak, Andaluziako jornalarien lur publikoen okupazioa, sindikatuen ingurumeneko lan ildoak edota hauen gabezia, Greziaren egoera ikuspuntu ekosozialistik, ekonomia sozial eta solidarioaren adibideak Ginebra hirian, emakume nekazarien borroka Frackingaren aurka Frantzia,...

Kapitalismoaren aurka, eta bere alde berdearen aurka, borrokan ari diren pertsonen eguneroko errealitatea ezagutzeaz gain, Ginebraren alde lotsagarriena ere bisitatu dugu, lehen begiratuan ikusten ez direnak baina hor daudenak: banku opako garrantzitsuenak, lehengaien merkatua non egunero munduko lehengaien erdia birtualki bertatik igarotzen den, Barcenasek bere milioiak ezkutatuta zituen bankua, eta nola ez, auziperatutako infantaren "apartamentua", hileru 18.000 euro kostatzen zaiguna. Oso era diskretuan ezkutatzen saiatzen diren lotsak.

Topaketetan landu den beste gai bat

hurrengo hilabeteetarako borroka eta mobilizazio agenda izan da. Azken urteetako borroka moldeen inguruan hausnarketa egin da eta gertuko etorkizunerako ditugun beharrak aztertu ditugu. 1999an Seattlen egin zen OMCren bilera inflexio puntua izan zen neoliberalismo basatiaren aurkako borrokan, eta orduandik mugimendu eta hitzordu ugari antolatu dira gai ezberdinen ingurukoak, ez beti espero zen arrakastarekin. Kopenhagen egin zen NBEren Klima Aldaketaren Konferentzia, klima aldaketaren aurkako borrokan beste inflexio puntu bat izango zela uste zen, ez izan espero zena. Baina handik beste mugimendu batzuk sortu ziren, Justizia Klimatikoaren Orain edo Bizi! Bezalakoak, zeinak borrokan eta mobilizazio eta alternatibak proposatzen aritu diren. Etorkizun gertukoenerari begira, klima aldaketaren aurkako borrokari berriro ekin behar zaio eta erlazionatutako beste borrokak artikulatzeko zutabe bihurtu behar da. Parisen 2015ean egingo den Klima Aldaketaren NBEren konferentziara (COP21) bidean jarraitu beharreko bidai orria eztabaidatu eta proposatu da. Hitzordu honetarako bidean borroka bizirik mantentzeko abiapuntua tokian tokiko ekintza eta mobilizazioak izango dira. Sarean antolatuta egoteak eta beste leku

batzuetan aurrera daramatzaten alternatibak ezagutzeak, ekonomia solidario, justu eta ekologikoa errealitate bihurtzea ahalbideratuko du. Osagarri hauekin iritsi behar gara 2015ean Parisera, mundu mailako hitzordu hau Kopenhage izan ez zen inflexio puntu izan dadin.

2. ELAREN INTERBENTZIOA "SINDIKATUEN EKARPENA IKUSPUNTU EKOSOZIALISTATIK" TAILERREAN

ELAn duela duela zenbait urtetik hona ari gara jorratzen ingurumen arazoentzako alternatibak, eta beti azpimarratu izan dugu krisi ekonomikoa krisi ekologikoarekin eta sozialarekin zeharo lotuta dagoela. Hortaz, ingurumen-justizia eta justizia soziala dira, edozein alternatiba plazaratzerakoan, gure oinarritzko printzipioak.

Bestalde, kontutan izanik gizarte injustu batean bizi garela, eredu sozial alternatibo bat defenditzeak ELA hainbat proiekturen aurkako borrokatan inplikatzera eramán du, esaterako abiadura handiko trenbidea, beharrezko ez diren azpiegitura handien eraikuntza (portu, autobide...), hondakinen erraustea, energia nuklearra, fracking-a, etab. Halaber, defenditu dugu iturri berriztagarrietan oinarritutako eredu

energetiko bat; hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea; garraio-eredu iraunkor bat; elikadura burujabetza; ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu arduratsuagoa, edota klima-aldaketari aurre egiteko borroka. Auzi hauetan borrokatzeko ezinbestekoa da beste antolakunde sozialekiko aliantza, toki, eskualde zein nazioarteko esparruetan.

Pairatzen ari garen krisi global handia dela eta, krisi hirukoitza (ekologiko, sozial eta zaintzarena), errealitateak hartara beharturik eta justizia sozial eta ekologikoa helburu dugula, ELAn alternatiba bat erabaki genuen ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala.

Baina, zer da hori, eta nola gauzatu behar da?

Hazkundearen ekonomiatik eta logika industrialetik irteera ordenatua egiteko proposamena da, beste ekonomia, beste gizarte baterantz, non lehentasuna iraunkortasuna, kalitatea, solidaritatea eta herritarren parte hartzea izango den.

1. **Eredu ekonomikoaren iraganari eta etorkizunari buruzko aurre-solasa**

Gizarte industrialia kontsumo-gizarte bat da; bilakaera bat izan du, beharrianak asetzeko produktotik industriak mantentzeko kontsumora igaro baita.

Hazkundearen gizarte honen ezaugarri Bidezko eredua, naturarekin bakean dagoena nagusiak:

- Aberastasunaren adierazle BPGd eta beronen hazkundera dira, nahiz eta aintzat ez hartu planetaren muga fisikoak, produkzioaren esternalitate ekologiko eta sozialak, aberastasunaren banaketa edota merkatuko ez diren lanak.
- Produktibitatea gehitzea aurkezten da aurrerabidearen eta gizarte-babesaren oinarri legez, produktibitate gehikuntzaren zati handi bat jasan ezinekoa bada ere.
- Beste printzipioetako bat da teknologiari esker gainditu ahal izango direla arazo sozial eta ekologikoak.
- Enplegutzat lanaldi osoko lan produktiboa hartzen da. Haatik, lanaz mintzatzerakoan kontutan izan behar da lan produktiboa eta erreproduktiboa, ordaindua eta ez ordaindua. Garrantzitsua da lanaren zatiketa sexuala aipatzea, beronek eragiten baitu aitorpen sozial eta ekonomiko handiago edo eskasagoa, baita genero desberdintasun estrukturala ere. Hartara, edozein enplegu ona da, edozein dela ere bere xedea, etika, ingurumenean, ondorengo belaunaldietan edota Hegoaldeko herrietan duen eragina.
- Kontsumoa lan sozialtzat hartzen da; sistemaren hobe beharrez kontsumitzen da.

Lan- eta kapital-errentak berdintasunez birbanatuko balira ere, planeta eta erdi bagenu bezala bizitzen jarraituko genuke. Lanaldi osoko enplegu beteak aldarrikatzea arrisku ekologiko bat da. Makroekonomia ekologiko alternatiboa aldarrikatzen dugu, honako oinarriekin:

- Hazkunderik gabeko oparotasuna. Egonkortasuna ez da hazkundearen menpe egongo, eta BPG ere ez da aberastasunaren lehentasunezko neurria izango.
- Kalitatea eta iraunkortasuna gehitu, beste zerbaitez produzituz lan gehiago eta lan hobea medio. Kalitate handiagoa duten produktu eta zerbitzuak, energia gutxiago kontsumitu eta ingurumenean eragin txikiagoa dutenak.
- Bizi-kalitatea hobetzea, inguru iraunkor batean; oinarriko beharrezkoak, esaterako jatekoa, energia edota etxebizitza, merkaturlogikatik atasetzea. Ondo bizitzeak esan nahi du ondasun ez ekonomikoak izatea (autonomia, solidaritatea, herritartasuna, ekologia, autoestima...).
- Oreatzea hainbat errealitatearen banaketa: Lan produktibo eta erreproduktiboa, ordaindu eta ez ordaindua, emakume eta gizonen artekoa. Bizitza ugaltzeko esparruari zor zaion balioa berriro aitortzea.

- Boterea berlokalizatzea. Herritarren deliberazioa funtsezkoa da mundu mugatu eta solidario batean desiragarri eta egingarri diren beharrienei buruzko erabaki kolektiboa hartzeko, ebazteko zein lan mota behar den horiek osatze aldera, eta gizarte-proiektu honetarako beharrezko den teknologia hautatzeko.

2. XXI mendeko eraldatze handia

Edozein enplegu ez da baliagarri. Ekonomia ekologiko eta bidezko batean sektore batzuk baztertzeak dira, eta beste batzuk, desiragarriak eta etorkizunekoak.

Ordain txarreko lanak, oso aintzat hartzen ez direnak, erreproduktiboak dira eta oso feminizatuta daude; bada, soldata handiagoa duten lanek baino balio handiagoa sortzen dute. Aitzitik, ondo ordaindutako lanek estatus sozial handiagoa dute eta gehienbat gizonezkoen esku daude, baina sortzen dutena baino balio handiagoa suntsitzen dute.

Baztertzeak diren sektore eta lanak

Krisi hirukoitzak ekonomiaren eta sektore produktibo batzuren hazkundera mugatu egiten du: horiek uzkuritu egin behar dute, edo desagertu. Enplegu batzuk ez dira onargarriak ikuspuntu sozialetik, eta jasanezinak, ekologikotik. Lanek bi helburu

izan behar dituzte, berdintasuna eta iraunkortasuna; gainera, kontutan izan behar dituzte agindu etikoak, ekologikoak eta justizia sozialekoak. Hona hemen bi lehenengoak:

- Agindu etikoak: Enplegu batek ere ez lioke beste inongo pertsona edo talderi zuzenean nahiz zeharka min edo kalte moral zein fisikorik eragin beharko, lantokitik gertu edota munduko beste edozein tokitan dagoela ere. Honen adibide argia dugu armagintza sektorea, baina beste jarduera batzuk ere sortzen dutena baino balio handiagoa suntsitzen dute, esaterako finantza-sektoreak eta burbuila inmobiliarioaren eta egungo krisi ekonomikoaren zati handi batek.

- Agindu ekologikoak: Energia eta materia neurrigabe erabiltzen duten sektoreak murriztu eta eraldatu egin beharko dira, adibidez automobilgintza, hegazkingintza, energia ez berriztagarria, nekazaritza intentsiboa, masa-turismoa edota eraikuntza.

Eraldatzeak esan nahi du, bestalde, sektore produktibo guztiek erabiltzen duten energia eta materiala murriztu behar dela, planetaren mugen arabera izatera iristi arte.

Sektore desiragarriak edota etorkizuneko lanak

Aldez aurretik finkatutako ideiak gorabehera, ekologia eta lana (produktibo zein erreproduktiboa) batera doaz. Eraldatze ekologiko eta sozialarekin enplegu desiragarria sortzen da hainbat sektoretan:

- Zaintzaren eta bizimodu onaren ekonomia

Oinarriztat pertsonen eta hauen oinarrizko beharizanen zaintza duten jarduerak, parte hartzea eta solidaritatea mantendu eta sustatzekoak, eta eskubide unibertsalak gauzatzea ahalbidetzen dutenak.

- Zerbitzu publikoak

Sektore honek balio erantsi handia du pertsonentzat, gizartearentzat eta ingurumenarentzat (garraio publikoa, ikerketa, heziketa, osasuna...).

- Merkatua

Merkataritza-jardueren gaineko kontrola berreskuratu behar da, mugak ezartzeko eta berdintasun eta iraunkortasun arauak finkatzeko. Kontua da finantza-merkatuak arautzea, orientabide ekologiko, etiko eta sozialak ezarriz eta zerga bat ordainaraztea jarduera espekulatiboek eragindako finantza-transakzioei. Eredu produktiboak behar du, bestalde, ingurumenari buruzko araudi bat eta fiskalitate ekologikoa (ekotasak ezarriaz eta sektore kutsatzaileentzako diru-laguntzak

kenduz; berriztagarriak eta efizientzia energetikoa sustatu behar dira).

-Ekonomia sozial eta solidarioa (ESS)

ESSaren oinarriak berdintasuna, enplegua, ingurumenaren errespetua, lankidetzeta eta irabazteko asmorik eza, inguru sozialarekiko konpromisoa, parte hartzea eta barne-demokrazia. Kooperatibak,

mutualitateak, elkarteak, enpresa sozialak eta zenbait fundazio biltzen ditu. Enpresa kapitalistarekiko alternatiba baten sinboloa dugu, kudeaketa aldetik zein helburu eraldatzaileak dituelako. Jarduera eta lanpostu dezente, parte hartzaile eta iraunkorrak sortzeko bide garrantzitsua da.

-Enplegu berdeak, eraldaketaren zutabea

Langabeziaren aurka jotzeko gako bat dira, gizarte honetan enplegurik gabe dagoen jendea baztertze ekonomiko eta sozialean jausi ohi baita. Enplegu berdeak honakoak dira:

- Gizakiaren jarduerak izan dituen eragin kaltegarriak zuzendu, gutxitu edo onbideratzen dituzte.

- Ondasun eta zerbitzuak ingurumenarekiko errespetuz sortzen dituzte.

- Prebentzioa eta kontrola xede duten zerbitzuak.

- Produktuak eta prozesuak ingurumenarekiko

modu egokian modernizatzen ari diren sektore tradizionalak.

- Ikerketa eta garapeneko jarduerak.

Florent Marcellesik ELArentzat 2013an egin duen ikerlanaren arabera, Hego Euskal Herrian enplegu desiragarriari dagokionez 102.000 lanpostu berde sortzeko aukera legoke, langabeak 2013ko abenduan 211.000 zirelarik.

3. Trantsiziorako beharrezko baldintzak

Justizia soziala eta ingurumenekoa konbinatuko dituen trantsizio ekologiko batek hainbat baldintza eskatzen du:

- Aldaketa kulturala eta bestelako itxaropenak: Aldaketa soziala iritsiko bada beharrezkoa da berpentsatzea eta demokratikoki erabakitzea zein izan behar den gizarte-proiektu desiragarri eta errealista, daukagun karga ekologiko ahalmenaren arabera; zehaztea beharizan kolektiboak eta onargarria litzatekeen kontsumo-maila, baita lan-indarra nola eta non inbertitu behar den ere.

- Parte hartzea plangintzan: Trantsizioak plangintza bat eskatzen du, herrialde zein sektore mailan. Aldaketa sozioekonomikoek tentsioak eta gatazkak eragingo dituzte, eta sektore batzuk murriztu edo desagertu egingo dira. Trantsizioa gaiak ukitzen dituen eragile

guztien artean hitz eginez burutu behar da: administrazioak, sindikatuak, enpresarioak, GKEak, kontsumitzaileak...

- Politika publikoak: Klima-aldaketari aurre egiteko politikak, enplegu berdeen sustapena, emakumeen antolakuntza bultzatzea, sektore desiragarrietan egindako inbertsio estrukturalak, berdintasunezko eredu produktibo iraunkorraren finantziazioa, babes soziala areagotzea eta sektore iraunkorretarako birmoldaketa laboralerako laguntzak.

- Lanaren eta aberastasun ekonomikoaren birbanaketa:

Lana banatzea eta lanaldia murriztea neurri garrantzitsuak dira, eta eredu produktiboari eman beharreko norabide berriaren osagarriak dira. Ekologista eta sindikatuen aldarrikapen historikoen harira dator: justizia soziala, planeta zaintzea eta hazkunderik gabeko ekonomia aberatsa eraikitzea. Hauek dira berdintasunezko birbanaketa bat lortzeko faktore garrantzitsuak.

- Lanaldia murriztea, soldata jaitsi gabe: Enplegua sortzeko politika bat da, benetan egingarria aberastasunaren banaketa bidezkoa onartuz gero. Langabeziak jotako kolektiboak gizarteratzeko eta euren egoera

ekonomikoa hobetzeko aukera ematen du. Bizitzako aroak lan ordainduaren eta ez ordainduaren artean orekatzeko aukera eskaintzen du. Beharrezko baldintza da emakumeak lan merkatuan hobeto sar ahal daitezen, lanaldi bikoitz eta hirukoitzak saihestuz, eta gizonezko eta emakumeen artean etxeko lanak eta zaintzakoak hobeto banatzeko.

- Lana eta familia kontziliatzea, gizon zein emakumeei dagokienez.
- Gizonezko eta emakumeen artean dagoen soldata-arraila murriztea.
- Lan-aste askoz laburragoa, egungo bizimodua aldatzeko: atzean utzi behar da lan egin, dirua irabazi eta kontsumitzearren bizitzeko ohitura. Gure helburua den gizartean energia hiperkontsumoa ez da gertatuko; areago ariko gara jarduera iraunkorretan.
- Aberastasun ekonomikoa birbanatu, baliabideak bai baitaude, baina gaizki banatuta. Ezinbestekoa da fiskalitate progresiboa: lan-errentei zerga apalagoak ezarri behar zaizkie, eta aldiz kapital-errentei eta baliabide naturalei (ekotasa), handiagoak.
- Errenta-politikan diru-sarrerara handiei eta kapital-errentei zergak gehitu behar zaizkie; gutxieneko soldata igo beharra dago. Gainera,

gehienezko errenta bat ere finkatu behar da, aberastasunaren birbanaketa bidezkoa, gizarte-kohesioa eta hiperkontsumoa gutxitzeko.

Honela ulertzen dugu ELAn eraldatze ekologiko eta soziala; behetik eta ezkerretik bultzatzen ez badugu, beste batzuren esku geratuko da. Baina orduan kapitalismoaren balioak nagusituko dira, injustizia soziala iraunaraziaz eta kolapso ekologikorantz amiltzen gaituztela. Hau dugu jarraitu beharreko bidea, sindikalismoaren erronkarik handienetakoa.

3. ELAREN INTERBENTZIOA "ALTERNATIBAK, BORROKAK ETA ESPERIENTZIAK ERALDAKETA SOZIAL ETA EKOLOGIKOAREN OINARRI BEZALA" TAILERREAN

Proposamenen gaiari heltzean, ELAk, sindikatu bat den aldetik, lehentasun gisa enpleguaren gaia izan behar du kontutan. Horregatik, enplegu politiken proposamenetan, irizpide sozial eta ekologikoak izaten ditugu kontuan.

Lanpostu guztiak ez daude justifikatuta. Horregatik ELAk ez du edozein enplegu eta edozein jarduera ekonomiko defendatzen. Ildo honi jarraituz, gure proposamenen artean hauek azpimarratuko genituzke:

- Enplegu berdeekin zerikusia dutenak. Ekonomiaren trantsizio sozial eta ekologikoarekin lotura duen gaia da. Ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredua aldatu behar dira, sindikalismoarentzat erronka handia izango da aldaketa honetan paper aktiboa izan behar baitu.
- Benetako ongizate gizarte bat bermatuko duten zerbitzu sozialen garapena. Asko dago egiteko oraindik hezkuntza, osasuna, zerbitzu sozialak, etxebizitza eta garraio iraunkorra bezalako arloetan.
- soldaten murrizketarik ekarriko ez duen lan jardunaldiaren murrizketa lanpostuak sortzeko politikaren oinarritzko elementua da. Aberastasunaren banaketa justuago batean oinarrituz egiten den proposamena da. Honi gehitu behar zaio pertsonen eta naturaren zaintza bizitzaren oinarri bezala lehentasun

duen gizarte eredu baterantz egitea.

- Bizitza duin bat izatea ahalbideratzen duten prestazio sozialak bermatzea. Aldarrikapen honek pentsioekin, langabezi prestazioarekin, edo beste prestazio sozial batzuekin du zerikusia, hauek gizartearentzat bermatutako eskubideak izan behar baitira.

Enplegua sortzera bideratutako proposamen hauekin batera, ELAk beste lan ildo batzuk ere baditu ingurumenarekin errespetuzkoa den eredu baten defentsarekin lotuta:

- Alde batetik, enpresen esparruan, ekoizpen ereduak ingurumenarekin errespetuzkoak izatea aldarrikatzen dugu. Honek ez du lanposturik arriskuan jartzen. Lanpostuak arriskuan jartzen dira enpresak ez badu ingurumen legedia errespetatzen edo garatzen dituen jarduerak ingurumenarentzat eta inguruan bizi diren pertsonen osasunarentzat kaltegarriak badira.
- Bestalde, eta adibide bezala, AHTren, ekonomikoki eta sozialki desiragarriak ez diren azpiegituren (adibidez Pasaiko kanpoko portua), frakingaren eta energia nuklearraren aurkako

jarrera daukagu besteak beste. Elkarlanean aritzen gara beste eragile batzuekin sistema kapitalistaren alternatiba izango den beste eredu baten defentsan.

Alternatiben eraikuntzaren alorrean, Euskal Herrian kokaturiko bi esperientzia aipagarri ditugu. Batetik, Baionan urriaren 6an Bizi!k antolatu zuen "Alternatiba, Alternatiben Herrixka", non 10.000 pertsonen parte hartu zuten. Tokian tokitik hasita alternatibak eraiki daitezkeela baieztatu zen. Egun horretan Baionako hiria okupatu zen, alor ezberdinetan aurrera eramaten ari diren alternatibak erakusteko (tokiko txanpona, banka etikoa, elikadura burujabetza, energia iraunkorreko kooperatibak,...) Ez zen benetako alternatibak daudenaren egiaztapen soila izan, pertsonekin eta naturarekin ankerra den eredu kapitalistari buelta emateko elkarlanaren indarra eta borrokak artikulatzeko beharra agerian geratu ziren. Baionako eredu Europa osora ari da zabaltzen, eta 2015ean Parisen egingo den COP-21 bilerari begira elkarlanean arituko garen mugimendu sozial eta sindikal ugariaren strategiaren parte da jada.

Bigarren esperientzia Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta da. Hegoalden urteak

daramatzagu austeritate politika deritzanen aurkako borrokan. Politiken aldaketa exijitu dugu. Eta horretarako proposamen eta mobilizazio ugari egin ditugu, hauen artean 6 greba orokor. Lan hau aliantza bidez egin dugu. Hasiera batean sindikatuen artean egindako lana izan zen (eredua aldatu beharraren ideia partekatu eta elkarrizketa sozialaren iruzurra mantentzearekin ados ez geundenak. Beraz, sindikatu guztiak CCOO eta UGT ezik). Eta 2010 geroztik, elkarlana Gune Plataformaren bitartez egin da, sindikatu hauen eta arlo ezberdinetako mugimendu sozialen gehiengoarekin (feministak, gazteak, etorkinak, ekologistak, pobreziaren aurkako taldeak,...).

2013Ko Greba Orokorraren arira, Eskubide Sozialen Karta egiteko prozesua martxan jartzea erabaki zen. Austeritate politiken aurkako borrokak ez zigen eztabaidan eta partekatutako aldarrikapenetan aurrera egiten utzi, eta hau ezinbestekoa zela ikusi genuen.

Ordudanik, parte hartze prozesu bat diseinatu da. Talde sustatzaile batek Karta proposamen bat egin zuen, bi bloke nagusik osatzen zutena. Lehen blokeak partekatutako printzipioak azaltzen ditu, antikapitalistak, feministak eta ekologistak diren printzipioak.

(Lehen bloke hau otsailaren 8an Gasteizen egin zen Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladan onartua izan da)

Bigarren blokeak aldarrikapenak eta hauek martxan jartzeko instrumentuak hartzen ditu bere baitan. Hain konkretua ez den proposamena da, eztabaida eta parte hartzea bultzatze aldera. Bloke hau leku askotan ari da eztabaidatzen (100 herri eta auzotan). Maiatzaren 31rako Karta bukatutzat ematea espero da.

Karta egitearen esperientzia parte hartzen ari garen mugimendu eta pertsonentzat oso aberasgarria iruditzen

zaigu, ondoren interpelazio politiko eta mobilizazio bidez defendatu ahal izateko. Prozesu honek bide bat markatzen du helburu konkretu bat lortzeko elkarlanean: egungo eredu ekonomikoak inposatzen dituen printzipioak baztertuz, beste printzipio batzuetan oinarritutako gizarte bat eraikitzea. Merezi du.

Informazio gehiago jardunaldien [web orrian](#) edo [LeCourrier egunkariak idatziriko kronika honetan](#).